



berdindu!

Lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualen arretarako euskal Zerbitzua

Servicio vasco de atención a lesbianas, gays, trans, bisexuales e intersexuales

BERDINDU ZERBITZUA

URTEKO TXOSTENA



2022

URTARRILA - ABENDUA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES





AURKIBIDEA

ARRETA PERTSONALA	3
SARRERA	4
ARRETEEN LABURPENA	5
ERABILTZAILE GUZTIEI EGINIKO ARRETAK	6
URTEKO ARRETAK GUZTIRA	6
ERABILTZAILE MOTA	7
FAMILIAK	9
ADINAREN ARABERAKO ARRETA	10
JATORRIAREN ARABERAKO ARRETA	11
ESKARIAREN JATORRIA	12
KONTSULTA-MOTAREN ARABERAKO ARRETA	12
ESKAERA ESANGURATSUAK	16
KOMUNIKABIDEA	16
ZERBITZUA EZAGUTZEKO MODUA	17
ESKOLA ARRETA	18
BERDINDU ESKOLAK ZERBITZUAK	19
IRAKASLEAK - FORMAKUNTZAK ETA AHOLKULARITZAK	19
IKASLEEN FORMAKUNTZAK	22
FAMILIEN FORMAKUNTZAK	24
BESTE INTERES TALDE BATZUK	25



BERDINDU ZERBITZUA

ARRETA PERTSONALA



SARRERA


Eskuartean daukagun memoria, Berdindu Zerbitzuak 2022. Urtean zehar egin duen lanarekin dator bat. Aurten, zerbitzuaren 3. urtea da egungo formatuan ematen hari dela, eta urte berezia osasun-testuinguruari dagokionez. 2022 trantsizio urtea izan dela esan dezakegu, eta COVID-19ak sortutako egoera pixkanaka normalizatzen hasi da, baina oraindik ere ondoriak nabaritu dira. Izan ere, urtea 6. olatuarekin hasi zen, non kutsatze-indizeak hain larriak ez izan arren, oso altuak izan ziren.

Berdindu Zerbitzua ez zen egoera horretatik kanpo geratu, ez bakarrik erabiltzaile potentzialengan zuen eraginari dagokionez, baizik eta langileek ere kaltetuta ikusi zuten euren buruak kutsatzeen-indize altuak zirela eta, beren lana egitea zailduz. Zorionez, egoerak bilakaera positiboa izan zuen bigarren hiru hilabetera aurrera, eta horri esker, urteko bigarren erdian normaltasuna berrezarri zen.

Memoria honek zerbitzuaren jarduerak jasotzen ditu, arreta pertsonalaren eta prestakuntzaren alderdi bikoitzean (ikasleentzako, irakasleentzako eta interes estrategikoko sektoreentzako tailerrak). Lehenengo jarduketa-mailari dagokionez (arreta pertsonala), memoria honen hasierako kapitulua, komenigarritzat jotzen dugu honako zehaztapen hauek egitea:

- Txosteneko datu guztiak kontsulta berrien ingurukoak dira, hau da, zerbitzuarekin urtean lehenengo aldiz harremanetan jartzen diren pertsona edo erakundeen ingurukoak. Eskaera batzuk denboran zehar jarraipena behar izaten dute edo pertsona batzuk zerbitzura hainbatetan gerturatu dira. Eskakizun hauek, Jarraipen moduan sailkatuak, Kontsulta motaren arabera eta Harremanetarako bidearen arabera ataletan soilik hartzen dira aintzat. Irizpide hau ezarri zen urtean zehar zerbitzura gerturatu diren pertsona erabiltzaileen multzoaren ikuspeirik errealistena lortzeko aukerarik onena zela ulertu zelako.
- Katgoria desberdinetan azaltzen diren datuak hiru lurralde historikoetan erantzuniko eskakizun guztiekin datoz bat. Irizpide hau ezarri zen lurraldearen osotasunean modu orokor batean ulertzen den zerbitzuaren ikuspegi panoramiko bat eskaintzeko asmoz. Honek esan nahi du, atal bakoitzean deskribatutako gidalerroei dagokienez lurralde guztietan paralelismoa dagoenez, ezin dela, jakina, erabateko paralelismoa ezarri ehunekoen banaketari dagokionez.

Ikuspegi panoramiko ez oztopatzeko asmoz, lurraldeen arteko alde esanguratsua ikusten den ataletan soilik egingo da honen inguruko ohar labur bat.




ARRETEN LABURPENA

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA	%
ARRETA GUZTIRA	LEHEN. KONTSULTA	91	208	151	450	%69
	JARRAIPENA	72	57	69	198	%31
	GUZTIRA	163	265	220	648	%100
LEHENENGO KONTSULTA						
ERABILTAILE MOTA	PERTSONAK	60	122	83	265	%59
	ERAKUNDEAK	31	86	68	185	%41
	GUZTIRA	91	208	151	450	%100
PERTSONA ERABILTAILEAK	EMAKUME ZISEXUALA	27	48	30	105	%40
	EMAKUME TRANSEXUA.	8	17	12	37	%14
	GIZON ZISEXUALA	5	23	22	50	%19
	GIZON TRANSEXUALA	5	24	6	35	%13
	ASKOTARIKO GENEROA	5	3	0	8	%3
	E. GABE	10	7	13	30	%11
	GUZTIRA	60	122	83	265	%100
FAMILIA KOPURUA	GUZTIRA	14	34	16	64	%100
ESKAERA KOPURUA ADINAREN ARABERA	< 11 URTE	0	0	0	0	%0
	12/18	9	12	2	23	%9
	19/30	18	34	27	79	%30
	31/44	8	25	28	61	%23
	45/64	8	31	15	54	%20
	>65	0	1	1	2	%0
	E. GABE	17	19	10	46	%17
	GUZTIRA	60	122	83	265	%100
ETORKINAK	GUZTIRA	6	14	21	41	%100
ESKAERAREN JATORRIA	ARABA	80	4	1	85	%19
	BIZKAIA	3	180	8	191	%42
	GIPUZKOA	2	9	132	143	%32
	BESTE BATZUK	5	8	5	18	%4
	E. GABE	1	7	5	13	%3
	GUZTIRA	91	208	151	450	%100
KONTSULTAK GUZTIRA						
HARREMANETARAKO BIDEAREN ARABERAKO ESKAERA KOPURUA	AURREZ AURREKOA	49	58	52	159	%25
	TELEFONIKOA	60	169	107	336	%52
	POSTA E.	46	33	53	132	%20
	SARE SOZIALAK	5	1	8	14	%2
	BIDEOKONFERENTZIA	1	1	0	2	%0
	BESTE BATZUK	0	0	0	0	%0
	E. GABE	2	3	0	5	%1
	GUZTIRA	163	265	220	648	%100

ERABILTZAILA GUZTIEI EGINIKO ARRETAK

URTEKO ARRETAK GUZTIRA



Guztira, 648 eskari erantzun ditu Berdindu Zerbitzuak 2022. urtean zehar. Bertan 69% (450) lehen aldiz harremanetan jartzen diren erabiltzaileei deritzo, eta 31% (198) jarraipen-arretei. Eskaera berrien aldeko desfase hau, gutxiago antzematen da Araban, non bi kategorien arteko oreka handiagoa ematen den.

Jarraipen-arretatzat hatzen ditugu denboran zehar harremanetan behin baino gehiagotan jartzen diren pertsonen eskaintakoak. Hainbat arrazoi egon daitezke:

1. Izapideak edo berehalakoak ez diren informazio bilaketak behar dituzten eskaerak.
2. Une desberdinetan, arrazoi ezberdinengatik heltzen diren pertsonak.
3. Laguntza behar duten pertsonen egoera emozionala.

Osotasunean, eta 2021-eko datuekin alderatuta, eskaera kopuruen beherakada bat ikus daiteke urtean zehar. Jaitsiera hori, konstante bat izan da denboraldi osoan zehar eta orokorra lurralde desberdinetan. *1. kontsulta* kategorian, baita *Jarraipen* kategorian ikus daiteke, baina bereziki nabarmena da azken horretan, eta horrek zerikusia izan dezake artatutako kasuistikekin, jarraipen gutxiago behar izan baitute.

Zabalkunde mailan ahaleginak egin diren arren, ez da lortu urte hasieratik ematen hari ziren beheranzko zifrak iraultzea. Gaur egun, ez daukagu horretarako azalpen argirik, eta, gure ustez, azterketa zehatz bat behar du.




ERABILTZAILE MOTA

Hurrengo ataletan jasotzen diren datuak, urtean **lehen aldiz zerbitzuan sartu diren pertsonak edo erakundeak** kalkulaturaz jaso dira (450 arreta). Estatistika-irizpideek horrela egitera garamatzate, baina gogorazi nahi dugu kontsulta berriak zerbitzuak eskaintzen dituen arreta guztien % 69 a baino ez direla.

ERABILTZAILE MOTA


■ PERTSONAK ■ ERAKUNDEAK



PERTSONAK	265
ERAKUNDEAK	185

ERABILTZAILEAK


■ EMAKUMEA ■ GIZONAK ■ GENERO ANITZA ■ E. GABE



EMAKUMEA	142	GENERO ANITZA	8
GIZONA	85	E. GABE	30

ERABILTZAILEAK

■ EMAKUME ZISEXUALA
 ■ EMAKUME TRANSEXUALA
 ■ GIZON ZISEXUALA
 ■ GIZON TRANSEXUALA
 ■ GENERO ANITZA
 ■ E. GABE



EMAKUME ZISEXUALA	105	%40	GIZON TRANSEXUALA	35	%13
EMAKUME TRANSEXUALA	37	%14	GENERO ANITZA	8	%3
GIZON ZISEXUALA	50	%19	E. GABE	30	%11

Ikus daitekeenez, kontsulta gehienak norbanakoek egin dituzte, % 59-ak, eta % 41 erakundeei dagozkie.

Erakundeak.- Urtean zehar zerbitzuarekin harremanetan jarri diren erakundeen jarduera-eremua nahiko heterogeneoa izan da. Honako maila hauetan bereiziko ditugu:



- **Ikastetxeak:** Zerbitzura gerturatu diren ikastetxeen kopurua kontuan hartzekoa da (ikusi *kontsulten tipologia*). Ikastetxe hauek bulego ezberdinekin jartzen dira harremanetan, batez ere prestakuntza tailerrak eskatzeko (irakasle eta ikasleentzako), baita kasu zehatzetara zuzendutako aholkularitza eskariak ere, genero eta sexu identitatearekin lotura dituztenak batik bat (hemendik aurrera, SGI). Nabarmendu behar da, bulegoetan eskaria jaso ondoren, Berdindu Eskolak zerbitzura bideratzen dela, behar bezala kudea dezaten.
- Hainbat erakunde (CEAR, Zabalduz, Zuzenean, Gizarte Zerbitzuak, Gehitu ...) erabiltzaile partekatuei arreta emateari (asilo-eskaerak) edo beste erabiltzaile batzuei aholkularitza emateari buruzko eskaerak dituztenak. Azken kasu horretan, eskariak SGIari lotuta egon ohi dira gehienbat eta neurri handi batean, adingabeei.

Gainera, egokitzat jotzen dugun kasuetan, zerbitzua bera jartzen da harremanetan erakunde desberdinekin.

- **Gizarte-sentsibilizazioa.-** Sentsibilizazio ekimenetarako informazioa, elkarlana edo erreferentzia pertsonalak eskatu dituzten hainbat entitate.
 - Hedabideak batez ere data esanguratsuei buruzko jakingura
 - Udaletxeak edo bestelako erakunde ofizialak, data esanguratsuei buruzko eskakizunekin (maiatzaren 17 eta ekainaren 28), manifestuen, jarduteko giden edo protokoloen eskakizun,...
 - Neurri txikiagoan bada ere, sentsibilizazio-ekimenetarako lankidetzak edo erreferentzia pertsonalak eskatzen dituzten erakundeen eskaerak ere jaso dira.

Pertsonak.- Nolabaiteko gorakada hauteman da emakumeek egindako eskaeretan. Hala izanda hiru lurraldeetan, desfasea nabariagoa da Araban. Gogoratu nahi dugu emakume kategorian, emakume guztiak sartzen direla, pertsona transexuala edo zisexuala izatea alde batera utzita; berdinduz gertatzen da gizona kategorian. Bi kategoria horietan sartzen dira, gainera, aitek eta amek.

Oharra: Argitu nahi dugu, aurrerantzean, "trans" hitz generikoa erabiliko dugula testuan, hitz inklusibo gisa. Termino horrek bere burua emakume eta gizon transexual gisa definitzen duten pertsonak nahiz gizon edo emakume transexualekin definitzen dutenak biltzen ditu.

Pixkat gehio aztertuz gero, emakume zisexualak emakume transexualak baino askoz gehiago direla ikus daiteke (% 40 - % 14), gizonen ehunekoak askoz ere estuagoak diren bitartean (% 19 - % 13). Azken iruzkin horri dagokionez, esan behar da Arabako eta Bizkaiko kasu zehatzetan bien arteko ehunekoa (cis/trans gizonak) oso antzekoa dela. Bestalde, ia erabateko paralelismoa ikusten da gizon eta emakume transen artean.

Genero anitza kategoriak, gizon edo emakume gisa identifikatzen ez diren pertsonak dira, bestelako identitatetan kokatzen diren pertsonak hartzen ditu barne (ez-binarioak eta Queer, besteak beste), zerbitzura hurbiltzen direnak, gizon-emakume binomio zorrotzaren ondorioz beren sexu edota




genero identitatean sortzen diren gatazka-pertsonal, familiar edota kanpo- gatazkek direla eta. Ikus daitekeenez, gutxieneko ehuneko homogeneo samarra da, Araban presentzia gehiago izanik.

Oharra: Nolanahi ere, ez dugu alde batera utzi nahi SGla identifikatu ezin izan dugun pertsonen % 11.


FAMILIAK

FAMILIAK



KOPURUA	64	AMA	47
AITA	13	BESTE BATZUK	4

ADING. ADINA



<11	15
12-18	41
E. GABE	8

Urtean zehar 64 familia artatu dira guztira, hau da, pertsonen emandako lehen arreten % 24a. Datua, zifra absolutuetan iazkoa (81-64) baino txikiagoa bada ere, antzekoa da ehunekotan. Eskera gehienak amek egiten dituzte, eta portzentajezko balioak, bai aitek bai amek, 2021eko antzekoak dira. Kontsultak seme-alaben identitate eta/edo portaera ez-normatiboetara lotuta daude ia soilik, gehienak adingabeak izanda.




Egoerak eragindako kezka eta estutasunen inguruko informazio, aholkularitza eta laguntza eskakizunak izaten dira. Argitu nahi dugu ere, *Familiak* kategorian moduan izendatu arren, legezko tutorak eta adin nagusikoak diren laguntzaileak ere barne biltzen dituela.

Familia arreta sustatu duen adin txikikoen adinaren inguruan, 15 arreta egin dira 11 urte baino gutxiagoko haurrak dituzten familiakoei, eta 41 arreta 12 eta 18 urte bitarteko adin txikikoak dituzten familiei. Datu hauei, datua erregistratu gabe geratu ziren 8 familia arreta gehitu beharko litzaizkieke, seme-alabak adin nagusikoak baitziren.

ADINAREN ARABERAKO ARRETA

19-30 urte bitarteko adin-tartean, gorakada txiki bat ikus daiteke, ondoren, antzeko zenbakiekin, 31-44 eta 45-64 urte-tarteak. Zehaztu ezin izan den adin-tartean dauden erabiltzaileen kopuru bat existitzen da ere eta ehuneko horrek zerbitzura posta elektronikoz hurbildu diren erabiltzaileei egiten die erreferentzia edota adina zehaztea zailtzen duten arreta egoerei, ezaugarri zehatzak direla medio.



<11	0	45-64	54
12-18	23	> 65	2
19-30	79	SR	46
31-44	61		

19-30 urte.- Adin-tarte nagusia da. Zerrenda nagusia da. Kontsulta gehienak honako kategorian hauetan kokatzen dira: SGIari lotutako eskaerak; eskola-lanei begira informazioa eskatzen duten ikasle gazteak; asilo-eskatzaileak.

31-44 urte.- Adin-tarte honetan, aurreko eskema errepikatzen da, SGIari lotutako eskariak dira gehiengoak, batez ere aita/amen partez eginikoak, eta gainerakoak, askotariko eskaerak: asiloa, familia-eraketa, seme-alabatasuna...

45-64 urte.- Ehunekoa aurreko tartearen oso antzekoa da. SGIarekin lotutako gaiak ere nabarmentzen dira adin-tarte horretan. Esan behar dugu erabiltzaile gehienak gurasoak direla, eta



dokumentuak aldatzearen inguruko edo seme-alaben SGIari buruzko zalantzak edo kezken inguruko kontsultak egiten dituztela.

Adingabeei emandako arretei dagokienez (12-18), esan behar da ia guztiak beren nortasunarekin lotutako bizipenei buruzkoak direla. Adin-tarte hori ageriagoa da Araban eta Bizkaian Gipuzkoan baino; izan ere, bertan, gehienbat gurasoek egiten dituzte eskaerak.


Grafiko honetan jasota ez dagoen arren, erabiltzaile berriei bakarrik baitagokie erreferentzia, esan behar dugu, 18 urtetik beherako trans gazteei jarraipen-arreta handia eskaini zaiela. Kontsultak honako arrazoi hauengatik izaten dira: norberaren gorputzarekin lotutako gatazkak, hezkuntzan eta familian izandako transfobia-egoerak, dokumentuak aldatzeko informazio-eskaerak, gizarte-isolamendua, ingurune seguruak bilatzea, etab.

>65 urteko adin-tarteari dagokionez, ehunekoak, ikus daitekeenez, minimoa da.

Laburbilduz.- SGI kategoria da nagusi ia adin-tarte guztietan eta eskaerak hainbat gairi lotuta daude: dokumentuak aldatzea, seme-alaben nortasunari buruzko zalantzak edo kezka, tratamendu medikoak, bizipen pertsonala, etabar.

JATORRIAREN ARABERAKO ARRETA


Pertsona migratuei egindako arretak totalaren %15 izan dira, ehuneko hori irregularra bada ere, handiagoa izanez Gipuzkoan (arreten %25a). Datuak bateratuta, iazko aldi berean jasotakoaren antzekoa da. Gehiengo eskaerak gai juridikoekin lotuta daude, asilo-eskatzailleekin batez ere eta/edo SGIarekin (dokumentazioaren izapidetzea, identitateari buruzko aholkularitza, eta abar).






ESKARIAREN JATORRIA

Grafikoko ehunekoen banaketa, jakina, lurralde bakoitzean artatutako lehen eskaeren kopuruarekin lotuta dago. Nolanahi ere, eta "Arreten laburpena" taulan ikus daitekeenez, erantzundako 10 eskaeretatik ia 9 probintzian bertan sortu dira, hala izanez hiru lurraldeetan.



KONTSULTA-MOTAREN ARABERAKO ARRETA

Aurreko ataletan ez bezala, oraingo honetan urtean zehar jasotako eskari guztiak hartuko ditugu kontuan, eta, beraz, bertan egindako "jarraipen-arreta" guztiak jasoko ditugu. Zehaztu behar da gainera, kontsulta-kopurua ez datorrela bat erabiltzaile guztien kopuruarekin, askotan pertsona berak kontsulta bat baino gehiago egiten baitu.





Aurreko ataletan zertzelada laburrak eman dira zerbitzuan jasotako eskaeren tipologiari buruz, baina atal honetan xehetasun handiagoz aztertuko dugu gai hori, bereziki garrantzitsutzat jotzen baitugu erabiltzaileek agertutako beharrak ulertzeko orduan.

Aurreko urteetan ez bezala, oreka handiagoa ikusten dugu bi kategoria nagusien artean: *sexu-eta/edo genero-identitatea* eta kategoria *juridikoa*. Izan ere, Gipuzkoan eta Araban, Bizkaian ez bezala, kategoria *juridikoa* da nagusi.

Kategoria ezberdinak zehaztuko ditugu:

Sexu edo/eta genero identitatea. - Kategoria nagusia da. Kontsulta tipologiari dagokionez, hurrengo hauek nabarmentzen ditugu:

1. Dokumentu-aldaketari/dokumentazio iragankorrari buruzko informazioa, batez ere izena aldatzeari buruzkoa. Pertsona edo familia askok izan dute gai honetan interesa.


Sortutako arazoei dagokienez, esan behar da aurreko urtearekin alderatuta murriztu egin direla, baina hala ere, dokumentu-aldaketarekin lotutako 5 gertakari zenbatu dira guztira. Izena aldatzeko beharrezkoak ez diren betekizunak eskatzea izan da oztopo nagusia, Erregistro eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren 2018ko urriaren 23ko Jarraibidearekin bat etorritz. Baldintza horien artean daude txosten medikoak, Eusko Jaurlaritzak emandako dokumentazio iragankorra edo eskatutako izena erabili ohi dela egiaztatzea. Halaber, eskaera jaso duen erakundeak (Zuzenean) ez duela gaiari buruzko informazio handirik egiaztatu da.

2. Trans adingabeak: Gurasoek, ikastetxeek edo adingabeen munduarekin lotutako beste pertsona edo erakunde batzuek maila horretan egindako eskaerak oso ohikoak izan dira aurtan ere (aurreko urteetan ere ikusi da hori). Kasu askotan eskaera horiek dokumentu-aldaketarekin lotuta badaude ere, adingabeen sexu-identitateek eta arauz kanpoko genero-portaerek eragindako zalantzei edo ezinegonari buruzko aholkularitza-eskaerak ere jaso dira. Maila honetan, beren seme-alaben sexu edota genero identitatea onartzeko, eta, batez ere, ulertzeko zailtasunak dituzten gurasoei lagundu zaie.

Aurreko paragrafoan esandakoaz gain, gazteen eskaera zuzenak jaso dira, eta horien bidez egiaztatu ahal izan dugu zalantza asko daudela, gorputzeko ondoeza handia, emaitza azkarrak izateko antsietate handia, eta denborak eta prozesuak kudeatzeko zailtasunak. Atentzioa deitzen du, bereziki Araban, mutil trans asko, gorputz perfektu baten bila dabiltzala diruditenak. Horrek ezinegon handia sortzen die.

Gainera, gaininformazio handia antzeman da, adingabeak nahastera eta non kokatu ez jakitera eramaten dituen, eta horrek antsietate handia sortzen die azkenean.

3. Hormonazioari eta kirurgia-prozesuei buruzko informazioa (ezaugarriak eta sarbideak), eta bertan sortutako antsietate eta prozesuan zehar izandako arazoei aurre egiteko laguntza.
4. Aholkularitza eta laguntza ematea identitate-prozesuetan (zalantzak, ondoezak, etab.)



5. Harremanetarako zirkuluen eta erreferente pertsonalen eskakizunak.

Ikus daitekeenez, nahiko kategoria heterogeneoa da. Gainera aipatzekoa da beren sexu- eta/edo genero-identitate bera duen pertsona baten arreta eskatu duten erabiltzaile guztiak, horrela artatu direla.

Juridikoa.- Bi kontsulta-tipologiak osatzen dute kategoria horren zatirik handiena:

1. Dokumentu-aldaketa (trans pertsonak).- Aldez aurretik argitu nahi da ondorengo kategoria honek ez duela aurrekoa baztertzen. Sexu eta genero identitateekin lotura duten eskarien zati handi bat kategoria *juridikoan* biltzen dira dokumentazio aldaketei egiten diotelako erreferentzia.

Atal honetako eskaerarik ohikoenak, dokumentazio ofizialean eta Eusko Jaurlaritzaren dokumentazio iragankorrean izena/sexua zuzentzeko dauden aukerei buruzko informazioa dira, baita prozesuan konplikazioak gertatzen direnean ematen den laguntza ere.

2. Asilo-eskatzailak.- Eskabide-prozesua hasteko informazioa eta laguntza, espedientea indartuko duen laguntza-txostenak egitea, bai eta bere egoera pertsonal konplexuari lotutako harreman- eta laguntza-taldea behar duten pertsonak dira. Hori guztia dela eta, jarraipen saio asko beharrezkoak diren kasuak izaten dira. Egoera hauetan, entitateekin eginiko koordinaziorako harremanak asko izan dira baita prozesu eta laguntza psiko-soziala kudeatzen dituzten entitateekin ere (CEAR).
3. Neurri txikiagoan “familia-eraketa” eta “seme-alabatasuna”-rekin lotutako eskaerak izaten ditugu.

Amaitzeko, aipatu nahi dugu, bai kategoria hau osatzen duten eskarien kopurua, bai bi tipologia nagusietako baten edo bestearen prebalentzia (dokumentuen aldaketa / asiloa) ez direla homogeneoak, ezberdintasunak nabaritzen baitira lurraldearen arabera.

Hezkuntza.- Kategoria garrantzitsua da ere. Gehienetan, bulego ezberdinekin harremanetan jartzen diren ikastetxeak dira batik bat ondorengo helburuekin:

1. Sexu eta genero aniztasunari buruzko prestakuntza-tailerrak eskatzea, bai irakasleentzat baita ikasleentzat ere.
2. Kasu zehatzei aurre egiteko aholkularitza lana.
3. Neurri txikiago batean, kolektiboari buruzko informazioa eskatzen duten gazteak, eskolako, unibertsitateko eta abarreko lanei begira.

Argitu behar da aholkularitza eta tailerren eskaerak eskola-arretaren arlora bideratzen direla, behar bezala zehaztu eta kudeatzeko.



Gizarte sentsibilizazioa. - Talde horretan sartzen dira, batez ere, hainbat komunikabidek, udalek edo bestelako erakunde ofizialek egindako eskaerak, data esanguratsuen inguruan bideratutak batez ere, baita bestelako komunikatuak, protokoloak eta jarduteko gidak eskatu dituztenak. Neurri txikiagoan bada ere, sentsibilizazio-ekimenetarako lankidetzak edo erreferentzia pertsonalak eskatzen dituzten erakundeen eskaerak ere jaso dira.

Osasuna. - Atal honetan jasotako eskari gehienak trans pertsonen osasun-prozesuei buruzkoak dira. Funtsean, trans emakumeek eta gizonak, baita gurasoek hormona-tratamenduei, blokeatzaileei, kamiseta konpresoreei (Binder) eta gorputzeko aldaketei buruz egindako eskaerak barnebiltzen dira. Neurri txikiagoan, arlo psikologikoarekin zerikusi duten antsietareen inguruko eskaerak jaso dira.

Juridikoan bezala, azaldu behar dugu kategoria honek ez duela sexu- edota genero-identitatearen kategoria baztertzen, izan ere atal horiei erreferentzia egiten dioten hainbat kontsulta ere puntuatu dira.

Sozializazio sareak. - Maila honetako eskaera garrantzitsuena zerbitzuari buruzko informazioa eskatzea da. Batik bat; zer den, zein jarduera dituen, antzekoek osatutako taldeak dauden ala ez, etab.

Era berean, neurri txikiagoan bada ere, hiriko LGTBI+ sareei eta kolektiboek buruzko informazio-eskaerari ere erantzun zaio, bai eta elkarguneak eta espazio seguruak eskatzeari ere, beldurrik gabe sozializatzeko eta adierazteko.

Sexu orientazioa. - Aipatzekoa da ehuneko txikia biltzen duen pertsona kopurua dela. Gatazka pertsonalak eta/edo familiarak (ingurukoaren homofobia) biltzen du, baita auto-onarpen zailtasunak ere.

Atal honetan sartzen dira, halaber, asiloa eskatzeko prozesuan dauden pertsonak eta/edo gazteak, bulegoetara beren bizipenak kontatzeko eta sexu-orientazioak modu seguruan adierazi eta berresteko guneen bila etortzen direnak. Asiloa eskatzen duten pertsona gehienak Gipuzkoan artatzen direla argitu beharra daukagu.

LGTBI+fobia. - Ehunekoa txikia bada ere (iazkoaren antzekoa), adierazi behar dugu 22 eskari daudela honako hauei lotuta:

1. Familia arteko gatazkak eta eskola-gatazkak (bullying). Sexu orientazioa edo/eta genero identitatea ez onartzearekin lotutako LGTBI+fobia egoerak.
2. Sexu-orientazioagatik, sexu- eta/edo genero-identitateagatik ustez diskriminatzen duten egoerak edo materialak (kartela, aldizkaria) salatzea.

Adierazi behar da, horrelako eskariak kudeatzeko, Berdinduk, Eraberan sarearekin, *tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako sarearekin* (Eusko Jaurlaritza) elkarlana egiten duela.



ESKAERA ESANGURATSUAK


Atal honetan, bereziki garrantzitsuak iruditzen zaizkigun eskaerak biltzen ditugu.

Idea suizidak: Egia da ez direla asko, baina eskariren bati erantzun zaio, bai helduen eskariari, bai gurasoek transmititutakoari, bai ideia edo mehatxu suizidak dituenari. Hala ere, esan behar dugu kasu guztietan ezin izan dela egiaztatu egoera hori sexu-orientazioaren edo GISaren ohiz kanpoko bizipenarekin lotuta dagoenik.

Gizarte-kalteberatasuneko egoerak: Ez dira asko izan, baina bai hiru pertsona izan dira artatu direnak (asiloa eskatzen duten hiru mutil) eta gizarte-bazterketa larriko egoeran egon dira, oinarritzko premiekin lortura zuzena izan duten egoeretan alegia (ostatua eta mantenua).

Asiloa: Urtean zehar hainbat herrialdeetatik (Brasil, Errusia, Honduras, Kolonbia) ihes egindako pertsonen eskaerei erantzun zaie. Historia dramatikoak dituzten eta zerbitzuak laguntza emozionala eskaintzen dien pertsonak dira, baita asilo-eskaera indartzen duten laguntza-txostenak ere: 1. txostena. Historia pertsonala eta ondorio eratorriak /2. txostena. Dagokion herrialdean LGTBI+ kolektiboarentzat dagoen legezketasuna eta egoera zaila egiaztatzen duen txostena.

KOMUNIKABIDEA



AURREZ AURREKOA	159	BIDEOKONFER.	2
TELEFONIKOA	336	BESTE BATZUK	0
POSTA E.	132	E. GABE	5
SARE SOZIALAK	14	BIDEOKONFER.	

"Kontsulta-tipologia" atalean bezala, eta memoria osatzen duten atal gehienetan ez bezala, atal honetan seihilekoan zehar jasotako eskaera guztiak hartuko ditugu kontuan, eta, beraz, bertan egindako jarraipen-arretak jasoko ditugu.

Ohi bezala, komunikazio-bide nagusiak telefonoa (% 52) eta, alde handiarekin, aurrez aurreko arreta (% 25) eta posta elektronikoa (% 20) dira. WhatsApp, bideokonferentzia eta sare sozialei dagozkien hondar-ehunekoak ikusten dira.




Aurrez aurreko arretei dagokienez, esan behar da gero eta presa handiagoa dagoela edozertarako, batez ere gazteekin zerikusia duten izapideetan. Horri gehitu behar zaio gero eta tramite gehiago egin daitezkeela online eta/edo arriskuan jartzeko beldurraren ondorioz, arreta presentzialen kopurua jaitsi egiten dela.

ZERBITZUA EZAGUTZEKO MODUA

Jarraian datorren grafikoan ikus daitekeenez, pertsona gehienek zuzenean jotzen dute zerbitzura (% 62), eta % 53k, berriz, aurreko ekitaldian. Uste dugu orain arte egindako zabalkunde-ekimenek eta zerbitzuaren finkatze handiagoak zeregin garrantzitsua izan dutela maila horretan. Nolanahi ere, gaur egun arte zerbitzua kudeatzen zuten elkarteak aldeaz aurretik ezagutzea bideratze-iturri garrantzitsua da oraindik ere.

ZERBITZUA EZAGUTZEKO MODUA



BERDINDU	280
BESTE BATZUK	127
SR	43



BERDINDU ZERBITZUA

ESKOLA ARRETA



BERDINDU ESKOLAK ZERBITZUAK

Berdindu eskolak zerbitzuak 6 jarduera-ildo nagusi ditu, hau da: aholkularitzak irakasleentzat, ikasleentzako prestakuntza, irakasleentzako formakuntzak ikastetxeetan, familientzako prestakuntza, Eraginguneetako profesionalentzako prestakuntza eta interes-taldeentzako ikastaroak. Halere, 2022ko lanaren argazkia ahalik eta esanguratsuena izan dadin, erabiltzaileen arabera metatuko ditugu aipatutako zerbitzuak:

- Irakasleekin izandako jarduna
- Ikasleekin
- Familiekin


Hezkuntza komunitatea osatzen duten atal guztietan izandako jardunaren azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egingo dugu ondorengo lerroetan.

IRAKASLEAK - FORMAKUNTZAK ETA AHOLKULARITZAK

Berdindu, bere ibilbide luzearekin, erreferente gisa finkatu da EAEn LGTBI+ kolektiboarekin zerikusia duen guztian. Hezkuntzaren arloari dagokionez, gero eta ikastetxe gehiagok hezkidetzak eta sexu- eta genero-aniztasuna batera ulertzen dituzte, eta horixe da, hain zuzen ere, Berdindu eskolak defendatzen duen erronka. Irakasleek ikasgeletan sexu- eta genero-aniztasuna lantzeko orduan, zenbait segurtasun falta sumatzen jarraitzen duten arren, eskerrak eman dute haiei babesa eta aholkularitza emateagatik.


Izan ere, ikastetxeetatik jasotzen dugun eskari kopurua gero eta handiagoa da zerbitzuko atal guztietan (bai ikasleen zein irakasleen formakuntzen eskarietan, batez ere). Zentzu honetan, COVIDaren aurreko zenbakiak gainditu dira 2022an, hasieratik handitzeko joerari eutsiz.

Hau da, Berdindu eskolak zerbitzua martxan hasi zenetik izandako garapena irakasle kopururari dagokionez:






Irakasleekin aholkularitzak eta sexu/genero aniztasunaren inguruko ikastaroak landu dira. Partaideen sexuari erreparatuta, honako argazki hau daukagu:




Ikastetxeek gehien eskatzen duten zerbitzua formakuntzari dagokio, ondorengo taulan ikus daitekeen bezala:



AHOLKULARITZAK IKASTETXEETAN

Egindako aholkularitzetatik ateratako ondorio nagusia argia da: ikastetxeek aholkularitza eta akonpainamendua eskatzen dute gehienetan trans ikasleak dituztenean. Kezka sumatzen da baita ere, bigarren hezkuntzako institutuetan LGTBI+fobia zantzuak antzematen dituztenean (homofobia, lesbofobia...). Guzti horri lotuta, ezin utzi aipatu gabe zenbaitetan jarrera matxistak eta sexistak antzematen direla. Erresistentzia handiak aniztasuna onartzeko, hain zuzen ere.

Abiatu ditugun aholkularitza gehienetan irakasleen formakuntzaren beharra aitortu da. Nahiz eta zenbait kasutan, irakaslegoak gero eta beldur gutxiagoz ekin gaiari. Zenbait kasutan trans ikasleen akonpainamendua modu egokian bideratzen den arren, transfobiaren beldur dira irakasleak, eta hori saihesteko tresnak eta dinamikak eskatzen dituzte.



Aholkularitzak zein formazio eskari batzuk Berritzegune Nagusitik jaso dira, baina berriro dira ikastetxeak zuzenean kontaktuan jartzen direnak Berdindu eskolakekin. Eraginguneetan ematen ari den eraldaketak eragin zuzena du gure hedapenarekin, zubi lan hori zenbait kasutan hankamotz geratu baita. Halere, komunikazio bikaina izan dugu Beritzegune Nagusia eta Berdindu eskolak zerbitzuaren artean eta hainbat egoeretan, elkarlanak eskuahartzea eta jarraipena ahalbidetu du.

FORMAZIOEN BALORAZIOAK

Azken bi ikasturteetan, egoerak hala eskaturik, zerbitzua egoerara egokitu egin behar izan da. Zenbait kasutan ikastaroak on line egin dira, eta urte honetako azken sei hilabetean aurreko egoerara itzuli garela esan dezakegu. Edozein kasutan argi geratu dena da irakasleek nahiago dutela presentzialki egitea, feedback-a ez baita berdina ordenagailu baten atzean egonda eta zer esanik ez partehartzeari dagokionez.

Berdindu Eskolak zerbitzuak egoera zehatzetan emandako aholkularitza eta jarraipena asko eskertu dute ikastetxeek eta Berritzegunetako zenbait kidek. Horrez gain, prestakuntzan landu diren tresnak eta gaiarekiko ikuspegi zabalaren aberastasuna baloratu dituzte bereziki. Ikus-entzunezko materialen lanketa egiteaz gain, egunerokotasunean ikuspegia txertatzeko irizpideak martxan jarri dira eta kasu edo egoera zehatzak bizi dituzten ikasleei ahalik eta akonpainamendurik egokiena egiteko urratsak landu dira.

Ondorengo taulan formazioa jaso duten irakasleen balorazioen emaitzak jaso dira:

(1etik 5era: 1- oso gaizki, 2- gaizki, 3- nahikoa, 4- ondo, 5- oso ondo)


	BALORAZIOA
EDUKIAK	4,25
ULERGARRITASUNA	4,40
METODOLOGIA	4,15
ERABILGARRITASUNA	4,29
IGURIKAPENAK	4,17
NOTA OROKORRA	4,55
GOMENDAGARRIA DA FORMAKUNTZA?	Bai: % 95; Ez dakit: % 5; Ez: % 0
ZELAN SENTITU ZARA?	Ondo: % 95,1; Kili-kolo: % 4,9; Gaizki: % 0

FORMAZIOA JASO DUTEN IKASTETXEAK


	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
HAUR HEZKUNZA+LEHEN HEZKUNTZA	8	17	10	35
BIGARREN HEZKUNTZA	7	16	9	32
BESTE IKASTETXE MOTA (PCPI, FP...)	0	0	1	1



Eskaera gehienak lehen hezkuntzako ikastetxeetatik etorri dira baina joera berdintze aldera doa. Halere, kontutan izan behar da, bigarren hezkuntzako institutu asko gero eta handiagoak direla eta talde bikoizketa egin behar izan dela. Zenbait kasutan 5 lerroko institutuak izan ditugu eta eskoletan gehienetan 2 lerro baino ez daude. Horrek esan nahi du errez topa ditzakegula 80 irakasletik gorako bigarren hezkuntzako institutuak.




Eskaerari erreperatuta eta batez ere eskolen izaerari begiratuta, honako zailkapen hau ikus dezakegu (publikoak edo itunpekoak):



Eskaera gehienak ikastetxe publikoetatik datoz, argi ikus daitekeen bezala. Eta hauetatik, nahiko parekatuta dago Lehen eta Bigarren hezkuntza.

IKASLEEN FORMAKUNTZAK

Gutzira 191 tailer egin dira EAE osoan.




	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
HAUR HEZKUNZA+LEHEN HEZKUNTZA	9	34	38	81
BIGARREN HEZKUNTZA	30	41	39	110
GUZTIRA	39	75	77	191

Ondorengo taulan, herrialde bakoitzean 2022an Berdindu Eskolak Zerbitzuko tailerretan parte-hartu duten ikasleen kopurua islatzen da, norberaren identitatea kontuan izanik.


	NESKAK	MUTILAK	EZ-BITARRA	GUZTIRA
ARABA	379	402	5	786
BIZKAIA	753	766	7	1.526
GIPUZKOA	706	724	57	1.487
GUZTIRA	1.838	1.892	69	3.799

Identitateari dagokionez, hiru herrialdeetan nola identifikatzen diren erantzuterakoan, gehienak neska edo mutilak bezena identifikatzen direla erantzuten dute. Iazko antzeko zenbakiak eman dira, ematen diren ezberdintasunek esanguratasunik ez dutelarik. Ez bitarren multzoan, ez bitarrez gain, erantzun nahi izan ez dutenak, ez dakitela adierazi digutenak eta identitate jariatza dutenak barnebidu dira. Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren artean zenbakiak antzekoak dira, ezberdintasun handiena LHn ez-bitar gehiago daudela DBHn baino.



Ikasleen ebaluazioak

Ebaluazioak begiratu gero, nabarmena da saioak oso aberasgarriak izan direla eurentzat. Alde batetik, aniztasun afektibo sexualaren eta oro ar hezkuntza sexualaren inguruko jakintza minimo bat eskuratu eta zalantzak argitzeko baliatu dituzte saioak; bestetik, gune eroso eta seguru bat sortzea lortu da sexu-aniztasunaren inguruan dituzten kezkek edo gogoeta pertsonalak adierazteko, azken hori gauzatu ahal izateko espazio seguru gehiegi ez izatea onartzen baitute.



Gai batzuetan gehiago sakontzea eta ordu gehiago eskaintzea eskatu dute, beraz, interes maila altua dagoela esan genezake. Gainera, ikasleen gehiengoak zerbait berria ikasi dutela idatzi dute ebaluaketetan. Amaierako iruzkin librean asko gustatu zaiela eta beharrezkoa zen azalpenak landu dituztela ere azpimarratu dute.

Hezitzaileen ebaluazioa

Azken urteetan gertatzen ari den moduan, desoreka geroz eta nabariagoa dago ikasleen arteko jakintza mailan. Duela urte batzuk herri desberdinen artean ikusten genuen moduan, orain ikasgela barruan gaiaren inguruan dagoen jakintza zein sentsibilitate maila oso desberdina da. Honek askotan zaildu egiten du gure lana, izan ere, oreka lortu behar da gutxien dakienak saioa jarraitzeko moduko edukiak landu eta aldi berean jakintza handia duen hori aspertu ez dadin. Dena den, oso positiboa iruditzen zaigu geroz eta gazteagoak direnek jakintza eta interes handia dutela gai horren inguruan. Izan ere, LHko saioetan (10,11 edo 12 urteko hurrekin) aniztasun afektibo sexuala geroz eta modu sakonagoan lantzea lortzen ari gara.

Bestetik, geletan LGTBI+ errealitateak geroz eta gehiago dira. Kolektiboko parte diren ikasle ugari topatu ditugu, eta ia guztiek ezagutzen dute gertutik LGTBI+ kolektibokoa den pertsona bat baino gehiago. Honek gure lana asko errazten du, izan ere, erreferente errealak askoz positiboagoak iruditzen zaizkigu askotan telebistan ikusten dituzten beste batzuk baino. Dena den, oso adierazgarria egiten zaigu ikasle ez-bitar edo euren generoa adierazi nahi ez duten horien kopuruaren gorakada. Azken urte hauetan transexualitate egoerak geroz eta ugariagoak egin diren bezala, epe laburra pertsona ez bitarrak ere geroz eta gehiago direla ikusten ari gara. Dena den, oso ezkutuan dagoen errealitatea da oraindik eta lan handia dugu hori ikusarazi eta horren inguruan hausnartzen ikasgeletan.

Ikastetxeen paperari bagazokio, aipagarria da zenbaitetan ikastetxeen eta bertako orientatzaile zein irakasleen aldetik inplikazio handiagoa faltan bota izan dugula tailerrak ematera joan garenean. Gehienetan ez dago inor harrerarik egiteko eta gelak non dauden azaltzeko. Bestalde, kasu askotan ikasleei ez zaie lehendik jakinarazi tailer bat jasoko zutenik. Dena den, ez da patroia zentru guztietan, eta Lehen Hezkuntzan bereziki inplikazio handia dago.

Sexu-hezkuntza gazteria gizarteratzeko mekanismo gisa ulertzen dugu, garapen pertsonalean horren garrantzitsuak diren aniztasun eta errespetuan oinarritzen baita. Beraz, esku-hartzeak arrakastatsuak izan dira eta balorazioek adierazten dute saioak oso positiboak eta aberasgarriak izan direla. Orain arte azaldutakoagatik, bide horretan jarraitzeko asmoa berresten dugu. Sexualitatea ikasgeletan landu beharreko funtsezko gaia da eta guk bide hori jorratzen jarraitzeko asmoa dugu, errealitate sexual bakoitza ahalik eta modu zoriontsuenean bizitzeko eta gizarte anitz eta errespetuzkoagoa eraikitzen laguntzeko gaitasunak eta trebetasunak errazteko.

FAMILIEN FORMAKUNTZAK

COVID-19ak familien formakuntzak bertan behera utzi zituen arren, 2022ko hasieran izan ezik, errekupeazioaren urtea izan da hau. Guztira 19 formakuntza egin dira (Arabán 1, Bizkaian 9 eta



Gipuzkoan 9) eta beti ere, trans egoeran dauden ikasleen eskoletatik edo gurasoek hala eskatuta jaso ditugu eskaera hauek.

Udaberri aldera osasun egoerak hobera egin zuenez, zenbait eskoletako gurasoak animatu egin ziren tailerrak antolatzen, zerbitzua guztiz errekuperatu delarik. Hala ere, kasu guztietan osasun neurriak eta aforoak, beti errespetatu dira.

Guztira, 218 partaide izan ditugu (172 emakume, 42 gizon eta 4 ez-bitar).

BESTE INTERES TALDE BATZUK

Berdindu zerbitzutik sexu eta genero aniztasunaren inguruko formakuntza insituzio eta eragile ezberdinetara hedatzen dugu baita ere. 2022 urtean zehar hurrengo formakuntzak burutu ditugu hezkuntza arlotik kanpo:

EAEko imigrazio teknikariak

Urtarrilak 14ean burutu zen EJan. Bertara erkidegoko imigrazio teknikari ezberdinak bertaratu ziren.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika saila

Ekainak 14, 15 eta 21ean zehar. Egun bakoitzean Jarduera fisikoa eta kirola, Hizkuntza politka, eta Kulturako departamentuekin burutu zen formakuntza hurrenez hurren, talde bakoitzeko teknikariek.

Talde guztietan helburu berdinak izan ditugu: EAEko langile publikoek jakintza minimo bat izatea sexu eta genero aniztasunaren inguruan, eta bereziki errealitate hauek nola zeharkatzen duten aldi berean euren egunerokotasunean lantzen dituzten gaiak, ikuspuntu interseksional batetik. Bide horretan jakintza guzti hau nola lurreratu izan da azken helburua, sistematizatzeke saiakera batetan.

Orokorrean esperientzia interesgarria izan da, eta talde guztietan sortu da gaian sakontzeko nahia, etorkizunean eman beharko lirakeen pausuak irudikatuz.

Gizonezkoak, maskulinitateak eta politika publikoak. Berdintasunarekiko konpromisoa. (Hombres, masculinidades y políticas públicas. Compromiso con la igualdad).

Abenduak 15ean Gizonduzek, Emakunderen parte, antolatutako maskulinitate jardunaldi batetan parte hartu genuen. Helburua Berdinduk gazterian maskulinitatea nola pertzibitzen duen adieraztea, beti ere sexu eta genero aniztasunaren ikuspuntutik. Mahai inguru metodologia jarraitu zuen, eta bi hizlariak amaitu ostean, entzuleekin batera elkarriketa ireki bat sortu zen. Saioa irekia zenez, eta haman minutu soilik hitz egiteko, oinarriko lau gai landu ziren, garrantzitsuena entzuleekin elkarriketa sortzea baitzen.

Aldi berean oso jardunaldi interesgarria izan zen Berdindu zerbitzutik kontaktu berriak egiteko intereseko pertsona eta profesional ezberdinekin.



berdindu!

Lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualen arretarako euskal Zerbitzua

Servicio vasco de atención a lesbianas, gays, trans, bisexuales e intersexuales